

Honen bidez, EAJ-PNV, eta PSE-PSOE talde politikoek Udal Plenoan bozkatzeko, POBREZIAREN DESAGERRARAZTEKO NAZIOARTEKO EGUNARI buruzko mozioa aurkezten dute:

Urriaren 17an Pobrezia errotik kentzeko Nazioarteko Eguna ospatzen da. Nazio Batuan 'Pobreziaren eta Giza Eskubideen gaineko printzipio gidarietan jasotzen den moduan: "Garapen ekonomikoko maila batekiko mundu batean, baliabide teknologikoetan eta inoiz ez bezalako baliabide finantzarioetan, milioika pertsonak bizi duten muturreko pobrezia, eskandalu morala da." "Eskandalu moral" hau ez da besterena gure gizartearentzat.

Covid-19ak eragin duen krisiak, agerian jarri du adierazitako talde hauen zaugarritasun egoeren larriagotzea .

Baina pobrezia ez da alderdi ekonomikora mugatzen, Nazio Batuen Printzipio Gidarietan jasotzen den moduan " diru sarrerarik eza eta duinki bizi ahal izateko oinarritzko ahalmen falta bameratzen dituen izaera multidimentsionaleko fenomeno bat da, ondorioz eman beharreko erantzunek, izaera multidimentsional hori kontutan hartu behar dute pertsona guztien autonomia materiala eta integrazio osoa lortzeko.

Euskadi Komunitate aitzindaria izan da gizarteratzeko politikak abiaraztean, pobreziaren kontrako borrokan eta gizarte-zerbitzuen garapenean. Emandako aurrerapenak garrantzitsuak izan dira, nahiz eta kontziente garen desberdintasunean eta baztertean eragiten duten faktoreek dirautela eta une hauetan ere garai kritiko bati ekiten diogula. Horregatik, bere ezabapenean aurrera egiteko eta inor atzean utzi gabe, gero eta gizarte bidezkoago, zuzenago eta solidarioagoa lortzeko, gure konpromisoa adierazten dugu

Konpromiso honi erantzuteko, politika sozialak indartu eta bermatu behar ditugula pentsatzen dugu, batez ere gizarteratze eremuan, gizarte-zerbitzuetan eta etxebizitzan eragiten duten horietan eta pobreziaren kontrako borrokan inpaktu adierazgarria duten haietan, pertsona zaharengan, familiengan eta haurtzaroan, baita pertsona migratzaileengan ere.

Horregatik guztiagatik, Tolosako Osoko bilkurak hurrengo onartzen du:

- 1.Puntua. Pobrezia errotik kentzearekiko gure konpromiso irmoa adierazten dugu.
- 2.Puntua. Aitortzen dugu Covid-ak, gure komunitatearen zaugarritasun soziala eta pobrezia egoerak larriagotu egin dituela eta horregatik, Eusko Jaurlearitzagatik hasiz, bere programa-konpromisoak jasotzen duen moduan, Euskal Erakunde multzoaren lehentasunezko jarduera, politika publikoak indartzea izan dadin konpromisoa hartzen dugu, enplegua, ekonomiaren errekupeazioa eta gizarte

politikak, Herriaren berreraikitze sozial eta ekonomikoaren alaketaren palankak, bilakatuz.

3.Puntua. Bizi izandako esperientziak garbi adierazten digu gizarte-zerbitzuek arreta, babesa eta ardurak eskaini behar dizkietela zaugarritasun handiagoko egoeran aurkitzen diren pertsoneri, baita pandemiaren ondorio sozialen aurrean populazioari erantzun ere, sor daitezkeen egoera berriak aurreikusiz eta antzemanaz eta orohar hiritarrak laguntza berriez hornitu. Alde horretatik, Gurea Gizarte-Zerbitzu-Sistemak bulkada berri bat behar du hura euskal gizarteak aurre egiten dien erronka berrietara egokitzeko.


Tolosa, 2020ko irailaren 24an

EAJ-PNV



Joseba Ormazabal

PSE-PSOE



Jose M. Villanueva